

Beizaman,
Gipuzkoako bihotzean



Eskola Programa Didaktikoa
HAUR eta LEHEN HEZKUNTZA



BEIZAMA

Gipuzkoako erdigunean kokatuta dagoen herri txikia da; umeentzako instalakuntza anitzak dituen eta naturarekin hartu eman estuan dagoen kokaleku ezin hobea da ikasleekin egonaldi lasai eta atsegina igarotzeko.

BEIZAMAKO ATERPETXEA - INGURUMEN ZENTROA

Kooperatiba kideok gure jardunaren bitartez gizarte jasangarriago baten eraikuntzan gure alea jartzeko asmoarekin, honen aldeko alternatibak eskaintzen ditugu.

Horien artean Ingurumen Hezkuntza programak burutzen ditugu, funtsezkotzat jotzen baitugu etorkizuneko helduak izango diren Euskal Herriko ikasleei (HH, LH eta DBH) jasangarritasun baloreak transmititzea.

Elikadura burujabetza

Garapen Jasangarriaren ildoan Elikadura Burujabetzaren erronkan hezteka dugu helburu:

- Elikagaien jatorri eta banaketa-kontsumo bidez jabetzea.
- Nekazaritza eta abeltzaintzaren esperientzia gertutik bizitzea.
- Herri txiki eta baserriek gizartean duten funtzioaz jabetzea: elikagai eta lehengaiak ekoiztuz ondare natural eta kulturalaren zaintzaile baitira.

Balore hezkuntza

Gure jardunean giza baloreak lantzen ditugu; harreman pertsonalak landuz eta aisialdiaz gozatuz.

Otorduak

Transmititzen ditugun mezuekin koherentzia bilatuz, kontsumo arduratsu eta eraldatzailearen irizpideak jarraituz prestatzen ditugu: km0, garaiko, ekologiko, artisau eta bidezko merkataritzako elikagaiak erabiliz.

NORI ZUZENDUTA

Eskuartearen duzun programa HH zein LHko ikasleei egokitzen da. Gutxieneko taldea 30 lagun. Gehienezko taldea 53 lagun.

PROGRAMA MOTAK

- “Egun-pasa Beizaman”: Egunezko irteerak.
- “Baserri galduaren bila”: 1 edo 2 gaueko egonaldiak, loaldi eta otorduekin.



Beizamako herriak, hiriguneetatik irteteko eta landa eremuaz gozatzeko aukera paregabea eskaintzen dizue, egun pasa eder bat Haur Hezkuntza zein Lehen Hezkuntzako ikasleekin burutzeko.

Herri euskalduna eta lasaia da, naturaz inguratua eta gainera baserri bat ezagutzeko edo tailer bat egiteko aukera izango duzue; eta denbora librean jolasteko baliabide ugari eguraldi eguzkitsu zein euritsuarekin.

Ekintzak

Baserrietara bisitak

Elikagaien jatorrira gerturatuko gara; baserriko animaliak gertutik ezagutuz eta nekazaritzaren irudiak umeengan sortuz.

Baserriak oinez irisgarriak dira (herrigunetik 1,5 – 2 kmtara); horietaraino garraioa edo ibilera taldearen ardura izango da.

Taller gastronomikoak:

Ikasleek aterpetzeko instalakuntzetan gozatu dute elikagaiak ekoizterakoan, osagaiak manipulatzeko direlako .

Ordutegia: 10:00-12:00.

Gutxieneko taldea: 30 ikasle.

TARIFA IKASLEKO (BEZ barne)	8,50 €
-----------------------------	--------

Herriko baliabideak

Bazkaria egiteko **estalpeko esparruak** daude: frontoia eta elizako arkupea.

Jolaserako espazioak:

- Txikiparkea dohan!
- Jolas parkea.
- Futbol eta saskibaloia espazioa frontoian.
- Basoa.



Gau bateko edo biko egonaldiek aukera ezin hobea eskaintzen dute eskolako esparrutik kanpo bestelako ezagutza praktikoak eta trebeziak lantzeko.

Egonaldiaren helburuak:

- Partaide guztiek egonaldi atsegina izatea eta ikasleen arteko errespetuzko harremanak izatea.
- Talde baloreak lantzea.
- Landa eremuaren eta herri txikien irudi positiboa sortzea.
- Baserriko bizimodua ezagutzea, lanbidetzat joz eta elikagaien ekoizpenaz eta kontsumo ohiturez hausnartzuz.

Gure metodologian ikasketa prozesuaren protagonista ikasleak dira eta **prozesuari garrantzia ematen diogu**.

Programako ekintzek gaiarekiko ezagutza mailaren sekuentzian oinarrituta daude: **sentsibilizazioa – informazioa – parte hartzea**

GAU BAKARREKO EGONALDIAK		8:00-9:00	Esnatu eta maletak prestatu
		9:00-9:30	Gosaria
10:00-10:30	Harrera	10:00-10:30	Denbora libre
10:30-13:00	1 Ekintza: Baserria	10:30-11:30	2 Ekintza: Sukalde Tailerra
		11:30-12:00	Hamaiketako
		12:00-13:00	2 Ekintza: Sukalde Tailerra
13:00-14:30	Bazkaria (etxetik ekarrita) Denbora libre	13:00-13:30	Denbora libre
14:30-16:30	Maletak eta denbora libre	13:30-14:30	Bazkaria
16:30-17:00	Askaria (etxekoa)		
17:00-19:00	3 Ekintza: Jolasak edo Tailerra		
19:00-20:00	Denbora libre		
20:00-21:00	Afaria		
21:00-22:00	Gaubela		



TARIFAK PERTSONAKO (BEZ barne)		ZERBITZU EXTRAK	
Loaldia eta pentsio osoa	36,00 €	Lehen eguneko bazkaria	9,50 €
+ 1 Ekintza	44,50 €	Lehen eguneko askaria	2,00 €
+ 1 eta 2 Ekintzak	53,00 €	Gaubela *	4,50 €
+ 1, 2 eta 3 Ekintzak	61,50 €		
Irakasleek loaldia eta pentsio osoa ordaintzen dute.			
*Gaubelarik ez baduzue kontratatzen, lokal eta ikus-entzunezko baliabideak eskaintzen dizkizuegu zuen kabuz burutu dezazuen.			

BASERRI GALDUAREN BILA

BI GAUKO EGONALDIAK		2. EGUNA		3. EGUNA	
1. EGUNA		8:00-9:00	Esnatu - Dutzak	8:00-9:00	Esnatu eta maletak
		9:00-9:30	Gosaria	9:00-9:30	Gosaria
10:00-10:30	Harrera	10:00-10:30	Denbora librea	10:00-10:30	Denbora librea
10:30-13:00	Ekintza 1: Jolasak	10:30-11:30	Ekintza 2: Baserria	10:30-11:30	3 Ekintza: Sukalde Tailerra
		11:30-12:00	Hamaiketakoa	11:30-12:00	Hamaiketakoa
		12:00-13:00	Ekintza 2: Jolasak	12:00-13:00	3 Ekintza: Sukalde Tailerra
13:00-14:30	Bazkaria (etxetik ekarrita) Denbora librea	13:00-13:30	Denbora librea	13:00-13:30	Denbora librea
		13:30-14:30	Bazkaria	13:30-14:30	Bazkaria
14:30-16:30	Denbora librea	14:30-16:30	Denbora librea		
16:30-17:00	Askaria (etxekoa)	16:30-17:00	Askaria		
17:00-19:00	4 Ekintza 4: Baserria	17:00-19:00	5 Ekintza : Tailerra		
19:00-20:00	Denbora librea	19:00-20:00	Dutzak		
20:00-21:00	Afaria	20:00-21:00	Afaria		
21:00-22:00	Gaubela	21:00-22:00	Gaubela		

TARIFAK PERTSONAKO (BEZ barne)		ZERBITZU EXTRAK	
Loaldia eta pentsio osoa	74,00 €	Lehen eguneko bazkaria	9,50 €
+ 1 Ekintza	82,50 €	Lehen eguneko askaria	2,00 €
+ 1 eta 2 Ekintzak	91,00 €	Gaubela *	4,50 €
+ 1, 2 eta 3 Ekintzak	99,50 €	Irakasleek loaldia eta pentsio osoa ordaintzen dute. *Gaubelarik ez baduzue kontratatzen, lokal eta ikus-entzunezko baliabideak eskaintzen dizkizuegu zuen kabuz burutu dezazuen.	
+ 1, 2 ,3 eta 4 Ekintzak	108,00 €		
+ 1, 2 ,3, 4 eta 5 Ekintzak	116,50 €		



EKINTZAK ADINAREN ARABERA

		Haur Hezkuntza	LH 1. zikloa	LH 2. zikloa	LH 3. zikloa
Baserriak	Aitzalde baserria	● *	● *	● *	● *
	Leunda ustategia		● *	● *	● *
Jolasak	Jolas Ginkana	●	●		
	Talde-kohesioko Jolasak			●	●
Tailerrak	Sormen Tailerra		●	●	
	Kontsumo Tailerra				●
Sukalde Tailerrak	Ogia	● *	● *	● *	● *
	Esnegain gailetak			● *	● *
Gaubelak	Diskofesta	●	●	●	●
	Musika kutxa			●	●
* Egunpasa Beizaman programan burutu daitezken ekintzak					



BASERRIAK

Bisitak baserritarrek batera burutzen dira.

Helburuak:

- Landa eremuko usaiak, irudiak eta soinuak sentitu.
- Baserritarrak, elikagaiak ekoizten dituzten langileak direnaz jabetzea.
- Baserriko animaliak eta barazkiak elikagaiak direla ezagutzea.
- Nekazaritza naturarekin hartu-eman zuzenean dagoela ezagutzea.
- Baserritarrak ohitura, natura eta kulturaren zaintzaile bezala identifikatzea.
- Baserritar eta herri txikien zailtasunak eta bizimodua ezagutzea.



AITZALDE BASERRIA Tradiziozkoa eta dibertsifikatua

Maritxuren eskutik, baserriko txoko guztietatik ibiliko gara talde txikietan.

Oilategia: oilo, oilasko eta untxiak.

Ukuilua: txerria eta behiak.

Belardiak, soroak eta baratza.

Baserriko ogiaren prestaketaren azalpena eta egurrezko labe tradizionala.

Asto gainean bueltatxoa emango dugu.



LEUNDA USTIATEGIA Haragitarako abelgorriak

Ukuilua bisitatuz Jon, abeltzaina, eta haragiaren jatorria ezagutuko dute .

Abelgorrien maneja eta zaintzak.

Abeltzaintzak paisaia eta naturaren mantenuan duen eragina.

Abeltzainen hiztegia.

Nekazaritza teknika berritzaileak: ugalketa eta selekzio genetikoak.



TAILERRAK

Ahozko, gorputz zein adierazpen plastikoa jorratzen ditugu tailerren bidez.

Helburuak:

- Baserrian ezagututako kontzeptu edo ideietan sakontzea.
- Ikasleen ikuspegitik baserritarrek eta herri txikiek dituzten erronkei aurre egiteko irtenbideak bilatzea.
- Sormena lantzea.

Kontsumo Tailerra

Elikagaiak eskuratzeko merkaturatze bide eta promozio estrategiez hausnartuko da; ikasleak, talde txikietan, baserritar bihurtuko dira eta produktuen salmentarako estrategiak asmatuko dituzte.

Sormen Tailerra

Talde txikietan, hondakintzat jotzen diren materialak berrerabiliz, modu plastiko batean, etorkizuneko baserri edota herri txikiak irudikatuko dituzte.



SUKALDE TAILERRAK

Osagaiak manipulatzu elikagaien transformazioa burutzen dugu tailer hauetan.

Helburua:

- Lehengai osasuntsuetatik abiatuz elikagaiak ekoizteko ahalmena badugula jabetzea.

Ogia

Ogiaren osagaiak eta hauen jatorria azaltzen dira, eta hauek manipulatzu ogia prestatzen da. Ikasle bakoitzak bere opila eramango du.

Esnegain gailetak

Errezetatik abiatuta, kantitateak neurtuz gailetak egiten ikasiko dute ikasleek. Bakoitzak 5-6 gaileta eramango ditu apaindutako kutxatxo batean.



JOLASAK

Gura jolasak talde baloreetan oinarritzen dira.

Helburuak:

- Taldean lan egiteko baloreak esperimentatzea.
- Irabazi ez galtzen ez den jolasen bidez ondo pasatzen ikastea.

Jolas Ginkana

Herriko instalakuntza eta espazio ezberdinetatik mugituz haurren zaletasun ezberdinei erantzuten dizkieten jolas ezberdinak burutzen dira: Mugimenduzkoak - Dantza eta gorputz adierazpenezkoak - Elkarlana eskatzen dutenak.

Talde kohesio jolasak

Taldea egituratzen laguntzen duten jolasak lantzen dira, honako baloreak landuz: Konfiantza - Entzuketa - Elkar zaintza - Elkarlana.



GAUBELAK



Gaubelen bitartez ikasleek lotsari aurre egitea bilatzen da; giro dibertigarria sortzen dugu, goatzeko espazioa izanik.

Diskofesta

Musika eta hezitzaileen gidaritzaren bitartez, gorputz adierazpenerako espazio bat da; ikasleek dantzarako dituzten gaitasunak azaleratzeko.

Musika kutxa

Dinamika honen bidez, mozorroez baliatuta, ikasleek taldetxotan froga ezberdinak burutu beharko dituzte; inprobisazioari aurre eginez eta euren sormen gaitasunak landuz: Mimika - Antzezpena - Dantza - Txiste eta ipuin kontaketa.

BEIZAMAKO ATERPETXEA — INGURUMEN ZENTRUA



beizamabizia@gmail.com

630.181.994

www.beizamakoaterpetxea.com



Kudeaketa Iraunkorreko Sistema dugu:
gobernantza onaren, gizarte-kohesioaren
eta ingurumenarekiko errespetuaren
helburuak zehazten ditugu.



Aterpetxe Turistikoa gara Erregistro zk.BSS00019.



Familientzako eta umeentzako bereziki
prestatuta gaude.



Eikagaien kalitatea eta bertokotasuna lantzen dugu.



Sare honen partaideekin batera Kontsumo arduratsu eta
eraldatzailearen baloreak eta alternatibak lantzen
ditugu.

